

GIZA TALDEA

Langileen prestakuntzari eskaintzen diogun arretak pertsonak ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak bereganatzea eta eguneratzea erraztu nahi du, enpresak bere egindako estrategiari eta erronkei erantzuteko.

2017-2023 aldirako lan-hitzarmena: prestakuntza-programak

Prestakuntza-programak	Helburuak	Baldintzak
Prestakuntza-premiak. I. Programa	Langileak berak egiten dituen lanetan edo bere lanpostuko berrikuntza edo proiektuetarako gaitzera zuzendutako prestakuntza ekintzak dira.	Enpresak bere egiten ditu kostu zuzen guztiak eta lan-jardunaldian.
Mailaz igotzea laguntzea. II. Programa	Prestakuntza-ekintzak, barne-prestakuntzaren bidez lortzeko moduko mailetan, promozioetara aurkez daitezkeen langileak gaitzeko.	Enpresak bere egiten ditu kostu guztiak, irakasle, lokal eta materialei dagokienez. Lan-jardunalditik kanpo egiten da, eta denbora ez da itzultzen.
Interes pertsonala. III. Programa	Baliagarritasun profesionaleko ikastaroak, hau da, IZSAren xede sozialarekin lotuta daudenak.	Gastu zuzenen % 75, 750 euroraino pertsonako eta urteko, barnean hartuta kopuru horretan eta denboran langile batek interes pertsonalarengatik egiten dituen prestakuntza-jarduera guztietarako laguntzak. Ingelesa ikastea. Laguntzek muga ekonomiko gehigarria izango dute, 750 eurokoa pertsonako eta urteko, eta eskolen % 75era joatearen eta/edo nahikotasunaren mende egongo dira eta prestakuntzako 1.500 ordutara mugatuta. Erabilitako denbora langilearen konturakoa izango da.
Euskara sustatzea	Euskara ikastea bultzatzea, bere balio kultural bereziagatik eta indarrean dagoen legeriarekin bat.	750 euroraino pertsonako eta urteko, eta eskolen % 75era joatearen eta/edo nahikotasunaren mende egongo dira eta prestakuntzako 1.500 ordutara mugatuta. Gehienez, bertaratutako orduen % 50 konpentsatuko dira, urtean 250 orduko muga izanda.

2023ko Prestakuntza Programak berekin ekarri du prestakuntzarako 378 ekintza garatzea, eta kostu zuzena 114.120 eurokoa izan da. Enpleguko Prestakuntzarako Estatuko Fundazioak 2023an emandako dirulaguntza 39.611,36 eurokoa izan da.

Interes pertsonaleko programa gure langileetako 20k baliatu dute, honako arlo hauetan: oinarritzko ikasketa zenbait, unibertsitate-ikasketak eta profesionalak. 7 ingelesa lantzen aritu ziren. Bestalde, 5 pertsonak jaso zituzten euskara ikasteko laguntzak.

Langileen prestakuntzari buruzko datu nagusiak

	2019	2020	2021	2022	2023
Prestakuntza-ekintzen kopuru osoa	311	355	426	393	378
Bertaratze-kopurua, guztira	2.935	1.725	2.521	1.405	2.206
Bertaratze-orduen kopurua, guztira	17.322	12.872	13.709	12.157	11.216
Erabilitako lanorduak, guztira	12.411	8.095	11.164	9.166	10.237

Prestakuntza-ekintzen kostu zuzena (€)	200.206	149.837	154.787	135.519	114.120
Lanorduen kostua (€)	371.504	298.357	330.094	272.703	289.018
Kostu osoa (kostu zuzena+lanordua) (€)	571.711	448.193	484.881	408.222	403.18

Langileen prestakuntzaren adierazleak

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Prestakuntza-orduak, langile eta ordu bakoitzeko	31,38	34,90	26,97	28,30	24,78	22,43
Prestakuntzan aritutako langileen %, plantillaren batezbestekoaren gainean	100,00	99,13	87,80	95,16	83,58	100,00
Lanorduen %, bertaratutako ordu guztien gainean	75,0	71,7	62,90	81,44	75,40	91,27
Prestakuntzarako inbertsioaren %, soldata-masaren gainean	2,73	3,15	2,36	2,50	1,94	1,84

Azkenik, praktika profesionalak sustatzeko Nafarroako hezkuntza-erakundeekin adostutako hitzarmenen harira, gurean, 2023an, 8 ikaslek egin dituzte praktika profesionalak, unibertsitateko 4 ikaslek (3 gizon eta emakume 1) eta Lanbide Heziketako 4 ikaslek (4 gizon).

Heziketa-praktiken adierazleak

Praktikak IZSAn	2019		2020		2021		2022		2023	
Sexua	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Lanbide Heziketako praktikak	1	1	0	0	0	0	3	2	4	0
Unibertsitateko praktikak	2	0	0	1	3	3	2	1	3	1
Guztirako partziala	3	1	0	1	3	3	5	3	7	1
GUZTIRA	4		1		6		8		8	